




Haririk

Euskal
fiskalitatearen
azterketa

ipar•hegoa



LAN
IKASKETARAKO
FUNDAZIOA

EUSKAL FISKALITATEAREN AZTERKETA

1.- SARRERA

2.- 2004KO URTEKO DATUAK

3.- GAUR EGUN INDARREAN DAGOEN ZERGA EGITURA ERREGRESIBOA: ZERGA EGITURAREN BILAKAERA.

4.- PFEZ-REN PROGRESIBITATE GALERA.

5.- PFEZ: SOLDATAPEKO LANAREN GAINEKO ZERGA

6.- GAUR EGUNGO JOERA FISKALEI ALDAKETA SAKON BAT EMATEKO OINARRIZKO PUNTUAK

LABeko idazkaritza ekonomikoa: **Rafa IZQUIERDO**
Oihan OSTOLAZA

2004

1.- SARRERA

Aurkezten dizuegun politika fiskalari buruzko txostenak zera egiaztatzen du, esparru honetan ere –gobernu ekintzaren zatirik nagusiena, aurrekontu-politikarekin batera- administrazio eta enpresarien irizpideek bat egiten dutela.

Hainbat gobernuk bultzatutako zerga-politikak helburu nagusi batzuk ditu: kapitalaren zirkulazio librea bermatzea, kapital faktorea hobetsi lan faktorearen kaltetan, eta lanetik etorritako errentak biztea eta eskuratzea sustatzea, produkzio-bideen jabetzaren onurarako.

Aurrerago ikus daitekeenez, politika hau, Nafarroa eta EAEren kasuan, estatu espainiarreko gobernuarekin bat etorritik burutzen da. Beste alde batetik, zerga esparruan eskuduntza osorik ez izateak, 2. mailako posizioa sendotzen du Espainiako politika fiskal eta aurrekontu politikekiko. Hala ere, kudeaketarako aukerarik dagoen kasuetan, politika fiskalaren irizpideak berdinak direla azpimarratu behar da:

- Zeharkako zergapena bultzatzea zuzenarenaren kalterako; horrela, gaitasun ekonomiko txikiagoa duten pertsonen errenta erabilgarriak okerrera egiten du.
- Kapitalaren errentak hobestea, zergak murriztu eta iruzur fiskal eta zerga-iheserako tarteari bidea ematea.
- Zerga-tipo finkoak aplikatzea ondare-gehitze eta inbertsio-fondo kolektiboetatik etorritako etekineterako.
- Kapitalaren etekinei murrizketak edo jarduera ekonomikoetatik etorritako errentak sendotzea.

Honen ondoren, jatorrizko atxikipen eta PFEZen aitortzen gaineke kontrolagatik, soldatapeko lanak, aitortutako errenten % 80 osatzen duela esan dezakegu. Zentzu honetan, adierazgarria da txosten honek biltzen dituen grafikoetan dauden datuei begiratzea. Honela, konpara daitezke aitortutako batez besteko errentak, jatorriaren arabera.

Burutu beharko litzatekeen zerga-politika, gaur egun bultzatzen ari den kontrakoa da, hain zuzen. Beharrezkoa da egungo legeria erregresiboa desegitea eta txosten honen amaierako atalean ondorio gisa zehazten diren gakoetan legeak egitea.

2.- 2004KO URTEKO DATUAK

E.A.E.ko Jaularitzak Eta Nafarroako Gobernuak egindako aurrikuspenen arabera, itundutako zergen bidez 12.228,2 milioi euro bilduko dira Hego Euskal Herrian 2004. urtean.

Aurrikuspen hauek betetzen badira, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek 9.619,4 milioi euro inguru jasoko dituzte, hau da, Hegoaldean itundutako zergen bidez bildutakoaren %78,7; Nafarroako Ogasunak, aldiz, 2.608,8 milioi euro jasoko lituzke (gainerantzeko %21,3).

4 herrialdeetan bildutakoaren %53 zeharkako zergen bidez jasoko da, 6.478,2 milioi euro lortuz



modu honetan. Zerga zuzenen bidez 5.607,2 milioi euro bilduko dira, hau da, sarrera fiskal guztien %45,9. Eta gainerako %1,2, 142,8 milioi euro inguru, Tasa eta beste sarreretatik etorriko da.

2004. urterako aurreikusitako itundutako zergen sarrera fiskalak:

	Milaka euro	%
Zerga Zuzenak	5.607.179	%45,9
PFEZ	3.970.516	%32,5
Soziet. Gaineko Zerga	1.392.782	%11,4
Ez Egoileen PFEZ	37.017	%0,3
Ondarearen Gaineko Zerga	136.225	%1,1
Oinordetzen Gaineko Zerga	70.639	%0,6
Zeharkako Zergak	6.478.234	%53,0
Balio Erantsiaren Gaineko Zerga	4.280.548	%35,0
Zerga Bereziak	1.671.692	%13,7
Aseguru Primak	78.784	%0,6
Ondasun eskualdaketa eta ...	446.762	%3,7
Gainerantzeko zeharkakoak	448	%0,0
Tasak eta bestelako sarrerak	142.761	%1,2
ITUNDUTAKO ZERGEN SARRERAK GUZTIRA	12.228.174	%100

Iturria: LAB-ek egina EAEko Jaularitzaz eta Nafarroako Gobernuaren Aurrekontuak kontutan hartuz

Zerga sistema, bere osotasunean harturik, progresiboa edo erregresiboa den baloratzerakoan, zerga zuzenek eta zeharkako zergak guztira bildutakoarengan duten pisu erlatiboa aztertzen da lehendabizi. Eta beraz, zenbat eta handiagoa izan zeharkako zergak duten pisua, geroz eta txikiagoa izango da zerga sistemaren progresibitatea.

3.- GAUR EGUN INDIRREAN DAGOEN ZERGA EGITURA ERREGRESIBOA: ZERGA EGITURAREN BILAKAERA

Justizia sozialaren ikuspuntutik desiragarria da sektore publikoak, zerga politikaren helburu moduan, errentaren birbanaketa ziurtatzea. Izan ere, gure gizartean iharduera ekonomikoak sortzen dituen desberdintasun sozial sakonak zuzentzeko ezinbestekoa da zerga egitura progresiboa diseinatzea.

Baina zerga sistema baten egitura progresibo kontsidera dadin, ekitate bertikalaren printzipioa jarraituz banatu behar du zerga zama, hau da, zerga kontribuzioaren zenbatekoak sarreraren mailarekin alderatuz proportzionalki baino gehiago handitu behar du. Modu honetan soilik lortzen da aberastasuna modu egokiagoan birbanatzea sektore behartsuenen mesedetan.

Aldiz, zerga zama ordainketa ahalmenarekin alderatuz proportzionalki banatuko balitz, biztanlegoaren segmentu behartsuenek esfortzu handiagoa egin beharko lukete, sarreraren zati handiena kontsumora zuzentzen baitute eta ez baitute aurrezki ahalmenik.

Zentzu honetan, aipatu beharra dago zeharkako zergak fiskalki erregresiboak direla, zergadunen ahalmen ekonomikoa ezagutzeko progresibitate elementurik ez baitute izaten, eta beraz, birbanaketaren aurkako efektua sortzen dute.

Bilketa datuak aztertuz, garbi dago gaur egun Hego Euskal Herrian indarrean dagoen zerga sistema erabat erregresiboa dela, sarrera fiskalen erdia baino gehiago (%53) zeharkako zergen bidez lortzen baita.

Zeharkako zerga garrantzitsuena Balio Erantsiaren gaineko Zerga da, biltze ahalmen handiena duena baita. BEZ-aren bidez lorturiko 4.280,5 milioi euroek, zeharkako zergen bidez jasotakoaren %66 eta itundutako zergen bidez bildutakoaren %35 suposatzen dute.

BEZ-ak modu berean (proportzionalki) zergapetzen du kontsumoa zergadun guztientzat, hauen sarrearen maila kontutan hartu gabe. Hala ere, errenta baxuenak dituzten gizarte segmentuek errentaren zati handiagoa erabiltzen dute kontsumorako, eta ondorioz, "zerga sakrifizio" handiagoa jasaten dute.

Zerga Bereziek ere biltze ahalmen garrantzitsua dute. Zeharkako zergen %25,8 eta itundutako zergen %13,7 suposatzen dute. Zerga hauek, biltze funtzioaz gain, gizarte kostua sortzen duten zenbait ondasunen (tabakoa, alkohola, hidrokarburoak, ...) kontsumoa zergapetzeko helburua dute.

Printzipioz, zergapetze berezi hauen helburua, ondasun hauen kontsumoa ezabatzea edo gutxitzea da, merkatu prezioan ez baitaude behar bezala barneraturik ondasun hauek sortzen dituzten gizarte kostuak. Beraz, osasunean, energian, garraioetan, ingurugiroan, ... eragin nahi duten tresna fiskalak dira.

Hego Euskal Herriko zerga egituraren bilakaera:

	Itun. Zer. Guz.	Zerga zuzenak	Zeharkako zerg.	Tasak eta best.
1995	%100	%54,5	%43,1	%2,4
1996	%100	%54,7	%43,1	%2,2
1997	%100	%48,5	%49,7	%1,8
1998	%100	%46,7	%51,6	%1,7
1999	%100	%46,0	%52,4	%1,6
2000	%100	%46,0	%52,7	%1,4
2001	%100	%47,3	%51,3	%1,4
2002	%100	%46,8	%51,7	%1,5
2003	%100	%45,9	%52,7	%1,4
2004	%100	%45,7	%52,8	%1,4

Iturria: EUSTAT, IEN, EAeko Jaularitza eta Nafarroako Gobernua. LAB-ek egina.

Fiskalitatearen¹ inguruko gaiak estatistika mugak eta informazio opakotasunak izaten dituzten arren, azken hamar urteetan zerga egiturak jasan duen bilakaera zein izan den azaltzen digu taula honek.

¹Nafarroaren kasuan ezin izan digu III Kapituluako (Tasak, prezio publikoak eta beste sarrerak) zerga izaerako sarreraren zenbatekoa ezagutu. Horren ondorioz, "Tasak eta besteak" kontzeptuaren barne aurrekontuetako sarrera guztiak barneratu ditugu; hori dela eta itundutako zergen bidez bildutakoarengan duten pisua (%) bi hamarrenetan gainbaloratua dago gutxi gorabehera.



EE.BB. eta Erresuma Batuan laurogeigarren hamarkadaren erdialdean hasitako erreforma neoliberalak oso azkar zabaldu ziren ekonomikoki aurreratuenak ziren herrialde gehienetara, eta politika ekonomiko eta sozialari dagokionez izugarritzko inboluzioa eragin dute, zerga sistemen progresibitatean ere eragin negatiboa edukiz.

Zerga zuzenen kaltetan zeharkako zergen garrantzia handitzea izan da erregresio fiskal honen ezau-garrien artean garrantzitsuena.

1995. urteaz geroztik zeharkako zergek itundutako zergen bidez bildutakoarengan duten pisua ia hamar puntutan handitu da Hego Euskal Herrian. Hala ere, gogoratu beharra dago 1997 eta 1998. urteen artean Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Foru Aldundiek oraindik itunduta ez zituzten zerga berezi guztien kudeaketa lortu zutela.

Hala eta guztiz ere, garbi dago zerga zuzen eta zeharkakoen artean ordezkatzeko prozesu bat gertatu dela. Eta zerga erregresio hau ahalbidetu duen arrazoietakoa bat, inolako dudarik gabe, zeharkako zergen ikusezintasuna izan da, prezioetan "ezkutaturik" joaten baitira biztanlegoarentzat antzemateko zailagoak izanik.

4.- PFEZ-REN PROGRESIBITATE GALERA.

Hasieran (1978) Espainiako gobernuak diseinatu zuen PFEZ tresna eraginkorra zen errentaren birbanaketarako, bilketa ahalmen handia zuelako eta sarrera mailen arabera oso progresiboak ziren interes tasak zituelako. Sortu zenean 25 errenta tramu zituen eta errenta altuenentzat %65,5eko zerga tasa maximoa.

Baina OCDE-ko herrialde gehienetan laurogeigarren hamarkadako bigarren erdialdean indarrean jarritako izaera neoliberalerako erreforma fiskal sakonek Estatu espainiarreko zerga sisteman ere eragina izan zuten, hamarkada bat beranduago bada ere.

Errenta tramuen eta gehienezko zerga tasaren gutxikuntza etengabeak izan dira erreformaz erreforma, PFEZ-ren progresibitatea eta birbanaketa funtzioa murriztuz errenta altuenen mesedetan. Erreforma hauen azken helburua PFEZ pixkanaka-pixkanaka linealizatzea da, sarrera maila guztientzat zerga tasa berdina ezarritz.

Hego Euskal Herrian burutu diren PFEZ-ren erreformek ere joera hau jarraitu dute; gaur egun, PFEZ-ren zerga eskalak 7 errenta tramu besterik ez ditu eta zerga tasa altuena %48koa da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eta %44koa Nafarroan.

EAE eta Nafarroako marko autonomikoetako kudeatzaileek etengabe berresten dute Kontzertu eta Itun Ekonomikoaren ondorioz zerga erregimen propioa osatzeko erabateko ahalmen arau-emailea² dugula; nahiz eta Estatuarekin zerga harmonizaziorako³ kriterio batzuk errespetatzeko obligazioa eduki.

²Ahalmen arau-emaile honen salbuespenak: inportazio eskubideak, Zerga Bereziatan inportazioaren kargak eta BEZ.

Praktikan, hala ere, gure ustezko "zerga autonomia" defendatzeko ezintasuna erakutsi dute. PNV eta UPN-k bultzaturiko zerga erreformek, espainiar Estatuko zerga sisteman sartzen joan diren oinarriko joerak jarraitu dituzte (zerga erregimen foralek desberdintasun batzuk mantentzen dituzten arren). Ezintasun politikoagatik edo zerga politika neoliberalaren ideiekin ados egoteagatik, bi administrazioek zerga progresibitatearen printzipioa eta aberastasuna modu egokiago batean birbanatzeko konpromezua alde batera utzi dituzte.



5.- PFEZ: SOLDATAPEKO LANAREN GAINEKO ZERGA

Orain arte aztertu dugun zerga kontraerreforma neoliberalak ezarritako zerga joera garrantzitsuenak hauek dira:

- Kontsumoaren gainean zeharkako zergak ugartzea.
- Zerga zuzenen presio fiskala gutxitzea.
- PFEZ-ren tarifaren linealizazioa eta progresibitate galera.
- Hain altuak ez diren zerga tasen aldeko joera.

Baina jatorriaren arabera bereizten duen zerga trataera ezarri duten beste aldaketa garrantzitsu batzuk ere gertatu dira. Erreforma hauen larritasunak ekitate horizontal⁴ deituriko printzipioaren galarra ekarri du, hondare hazkunderik, kapital errentek eta enpresari eta profesionalen etekinek jasotzen duten mesedeko tratua onduz. Hauek dira adibide batzuk:

- Eskualdaketa baten bidez burutu eta urte bete baino gehiagoan sortzen diren hondare hazkunderik ez zaie PFEZ-ren mailaketa progresiboa aplikatzen, duela urte batzuk %20koa zen eta gaur egun %15ekoa den zerga tasa ezartzen zaie.
- Kapital errenta batzuek, inbertsio fondo kolektiboetako partaidetzetatik datozen etekinek adibidez, izaera hori galdu dute eta hondare irabaziak bezala %15ean zergapeturik daude.
- Inbertsio fondo kolektiboetako partaidetzetatik datozen hondare irabaziak ez daude zergapeturik antzeko beste fondo batzutan berrinbertitzen badira. Ohizko etxebizitzaren salmentatik loruriko gainbalioengatik ere ez da ordaindu behar ohizko beste etxebizitza baten erosketan berrinbertitzen badira.
- Kapital etekinek %40 eta %50 arteko murrizpenak dituzte sortze epea 2 edo 5 urte baino luzeagoa bada; eta aseguru kontratuetatik datozen etekinen kasuan murrizpenak %75 artekoak izan daitezke.

³ Harmonizazio kriterio garrantzitsuenak hauek dira: a) Espainiako Konstituzioan ezarritako lurralde elkartasun printzipioa errespetatzea. b) Zerga normatiba Zerga Lege Orokorrean egokitzea. c) Presio fiskal orokorra Estatukoaren berdina mantentzea. d) Mugimendu eta ezartze askatasuna mantentzea, beste Administrazioentzat bereizgarriak izan daitezkeen neurri fiskalak ez hartuz.

⁴ Printzipio honen arabera, sarrera maila berdinak zerga trataera berdina jaso behar du, jatorria zein den kontutan hartu gabe.

- Iharduera ekonomikoetan⁵ jatorria duten errentek ere zerga trataera mesedegarria jasotzen dute, benetan lortutakoak baino txikiagoak diren etekin estimatuen (konbenio edo modulu bidez) bidez zergapetu baitaitezke. Gainera, errenta hauen izaerak, Ogasunari datuak ezkutatze aukera gehiago ematen ditu.

Ideologia neo-kontserbakorrak oso ondo aprobetxatu ditu globalizazioaren indartzea, enpresa eta merkatuen internazionalizazio azkorra eta kapitalek duten mugimendu askatasun zabala kapitala etengabe desfiskalizatzeko.

Eta nazioarte mailan koordinaturik dagoen zerga harmonizazio prozesurik ez dagoenez, zerga lehia kanpo inbertsioa lortzeko estrategia bilakatu da, kapital errentei tratu fiskal mesedegarriago eskainiz.

PFEZ-ren progresibitatea, ia osotasunean, soldatapeko lanaren errentetara mugatu da, kapital errentek eta iharduera enpresarial eta profesionaletatik datozenek jasotzen duten trataera fiskal onuragariaren ondorioz. Bestalde, azpimarratu beharra dago soldatapeko lana dela PFEZ-n pisu handiena duen errenta iturria, eta 2000. urtean aitortutako errenten %80 ingurua suposatu zuela.

Aitorturiko errenta iturri desberdinen pisu erlatiboa. PFEZ – 2000:

ITURRIA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Lana	%80,1	%78,7	%77,7
Iharduera ekonomikoak	%9,9	%8,5	%10,4
Kapital mugikorra	%4,8	%6,6	%5,5
Kapital mugiezina	%1,5	%1,9	%2,3

Iturria: EAE-ko Zerga Erakundea.

Baina badago PFEZ-ren eta orokorrean zerga sistemaren birbanaketa funtzioa ezabatu eta zerga zamaren banaketa egokia zailtzen duen beste faktore bat; iruzur fiskala.

Portaera hauen bidez, alde batetik, zerga normatibaren hutsuneak aprobetxatzen dituzte zergen ordainketak ekiditeko, eta bestetik, egiaztatzeko zailak diren eta jatorrian atxikipenik ez duten errentak ezkutatzen dituzte.

Garbi dagoen moduan, iruzur jardura hauek errenta altuenetan ugariagoak dira, batez ere kapitaletik eta iharduera enpresarial eta profesionaletatik datozen etekinetan, egiaztatzeko zailagoak direlako.

Aldiz, errenta baxuenak menpeko lanetik datoz batez ere eta iruzur egiteko aukera gutxi dituzte, nominak egiaztatzeko errazak baitira zerga administrazioarentzat. Guzti honen ondorioz PFEZ soldatapeko lanaren (menpeko edo norbere kabuz) gaineko zerga bihurtu dela baieztatu dezakegu.

Modu honetan soilik uler daiteke menpeko lanetik datorrena izatea aitortutako batz besteko errenta altuena; iharduera enpresarial eta profesionalengatik aitorturiko batz besteko errenta %33,5 inguru txikiago den bitartean. Datu honek gaur egun dagoen iruzur mailaren ideia bat ematen digu.

⁵ Norbere kabuzko lana eta iharduera profesionalak.

Aitorturiko bataz besteko errenta, iturriaren arabera eta eurotan . PFEZ – 2000:

ITURRIA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Lana	15.929,17	16.484,86	16.634,48
Iharduera ekonomikoak	11.956,09	10.375,22	11.325,90
Kapital mugikorra	909,49	1.261,87	1.193,20
Kapital mugiezina	1.260,57	1.591,90	1.932,80
Guztira	16.730,76	17.387,25	17.679,63

Iturria: EAE-ko Zerga Erakundea.

Iruzur fiskalaz gain, zerga erreformek eta errenta mota batzuei emandako mesedeko tratuak ere murriztu dute PFEZ-ren eta beste zerga zuzen batzuen (Sozietateena) biltze ahalmena.

Zerga sistemaren biltze eskasia ekidin eta gastu publikoaren finantzaketa estaltzeko (batez ere orain, defizit publikoa baztertu denean) zeharkako zergen bidezko presio fiskala indartu egin da, lehen aipaturiko ondorioak edukiz.


Hego Euskal Herrian bildutako itundutako zergen aldaketa tasak:

	Itun. Zer. Guz.	Zerga Zuzenak	Zehar. Zergak	Tasak eta bestel.
1998-99	%6,9	%5,3	%8,4	%2,6
1999-00	%9,3	%9,3	%9,9	%-7,8
2000-01	%2,3	%5,2	%-0,4	%6,7
2001-02	%6,3	%5,2	%7,1	%13,2
2002-03	%5,3	%3,4	%7,2	%-3,9
2003-04	%5,2	%4,7	%5,5	%6,4
1998-04	%40,6	%37,8	%43,9	%16,8

Iturria: EUSTAT, IEN, EAeko Jaularitza eta Nafarroako Gobernua. LAB-ek egina.

Aurreko taulan azter dezakegu zerga zuzen eta zeharkakoen bidez bildutakoak izan duen bilakae-ra. 1998. urtetik gaur egun arte zeharkako zergen bidez bildutako sarrerak %43,9 inguru hazi dira, eta zerga zuzenen kasuan, aldiz, igoera %37,8koa izan da.

Zeharkako zergak indartzeko zerga egituraren aldaketak barneratu badituzte ere, Hego Euskal Herrian itundutako zergek orokorrean eragindako presio fiskalak "zerra baten hortzen" itxura du, baina beheranzko joera nabariarekin.



Iturria: EUSTAT, IEN, EAEko Jaularitza eta Nafarroako Gobernua. LAB-ek egina.

Hala ere, sektore publikoak eragindako presio fiskal orokorraren neurri egokiagoa lortzeko, itundutako zergen bidezko sarrerez gain, Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak ere kontutan hartu behar dira.

Konkretuki, Hego Euskal Herrian 2001. urtean Gizarte Segurantzari ordaindutako kuotek urte horretan bertan sortutako aberastasunaren (BPG moduan neurturik) %12,4 inguru suposatu zuten. Horri itundutako zergen bidezko presio fiskala (%19,2) gehitzen badiogu, presio fiskal orokorra BPG-ren %31,6koa izan zela ateratzen da.

Bestalde, hamabosten Europar Batasunean (EB-15) presio fiskal orokorra 2001. urtean BPG-ren %41eko zen (%12,9koa Gizarte Segurantzari egindako ordainketengatik); hau da, Hego Euskal Herrian baino 9,4 puntu inguru altuagoa.

PRESIO FISKALA GUZTIRA 2001 URTEA (BPG-ren %)

Suedia	%51,4
Danimarka	%49,8
Finlandia	%46,1
Belgika	%45,8
Austria	%45,4
Frantzia	%45,0
Norvegia	%43,3
Italia	%42,0
EB - 15	%41,0
Luxemburgo	%40,7
Holanda	%39,5
Hungaria	%39,0
Txekiar Errepublika	%38,4
Erresuma Batua	%37,3

Grezia	%36,9
Alemania	%36,8
Islandia	%36,5
Turkia	%36,5
España	%35,2
Kanada	%35,1
Zelanda Berria	%33,8
Polonia	%33,6
Portugal	%33,5
Eslobenia	%32,3
Hego Euskal Herria	%31,6
Suitza	%30,6
Australia	%30,1
Irlanda	%29,9
EE.BB.	%28,9
Japonia	%27,3
Korea	%27,2
Mexico	%18,9

Iturria: OCDE eta LAB-ek egina.

Aurrekontuen kudeaketak duen eraginkortasun maila edo gastu publikoak politika desberdinetarantz duen orientabidea alde batera utzirik, garbi dago presio fiskala "Ongizate Estatu" deiturikoaren garapen mailarekin oso loturik dagoela, hau da, babes sozialean egiten den gastu handiago edo txikiagoarekin.

Arrazoi horrengatik, normalean, herrialde baten presio fiskala zenbat eta handiagoa izan, babes sozialera zuzenduriko BPG-ren portzentaia orduan eta handiagoa izaten da.

BABES SOZIALEAN GASTUA 1999 URTEA (BPG-ren %)

Suedia	%32,9
Frantzia	%30,3
Alemania	%29,6
Danimarka	%29,4
Austria	%28,6
Belgika	%28,2
Holanda	%28,1
Norvegia	%27,9
EB-15	%27,6
Erresuma Batua	%26,9
Finlandia	%26,7
Grezia	%25,5
Italia	%25,3

Portugal	%22,9
Luxemburgo	%21,9
Hego Euskal Herria	%20,1
España	%20,0
Islandia	%19,1
Irlanda	%14,7

Eta lehen frogatu badugu EB-15 eta Hego Euskal Herriaren artean fiskalitate mailan dagoen aldea BPG-ren 9,4 puntutakoa dela, orain ohartzen gara gure herrian babes sozialera zuzentzen den aberastasun portzentaia (BPG moduan neurturik) ere Europan baino dezente txikiagoa dela. Konkretuki, EB-15eko estatuetan, batzaz beste, gastu sozialera, BPG-ren 7,5 puntu gehiago zuzentzen dira.

Ondorio moduan baieztatu dezakegu gure herrian nahiko tarte badagoela presio fiskala pixkanaka handitu eta neurri berean gastu sozialera zuzenduriko partidak handitzeko, politika sozialaren alorrean Europaren mailara iritsi arte.

Adibide moduan, kontuan izan behar da 2004. urteko BPG-ren 7,5 puntu 4.764 milioi euro izango liratekela. Kopuru honekin bi gobernu autonomikoen Hezkuntza eta Osasun aurrekontuak ia bikoitz litezke; nahiz eta asko eta ugariagoak diren etxebizitza, pobrezia, bazterkeria, menpeko pertsonak zaintzeko zerbitzu publiko, ... bezalako gaietan gaur egun estaltzen ez diren beharrak.

6.- GAUR EGUNGO JOERA FISKALEI ALDAKETA SAKON BAT EMATEKO OINARRIZKO PUNTUAK:

1. Progresibitate eta ekitate horizontal printzipioak berreskuratzea PFEZ-n, azken urteetan egindako legeen aurkakoak eginaz.
2. Zerga normatiba hobetzea hutsune legalek eta finantza ingeneritzak iruzur fiskala erraz ez dezaten.
3. Iruzur fiskalaren aurkako borrokara zuzenduriko baliabideak gehitu eta errentak ezkutatzeari ezarritako zigorrak gogortzea.
4. Lehia fiskalari amaiera emateko nazioarteko koordinazioa zerga politikaren inguruan.